

## 'Irakurri, gozatu eta oparitu', datorren asteartetik aurrera

### Topaguneak antolatutako ekimena bi hilabetez luzatuko da EAE zein Nafarroako 24 herritan

IRUÑEA. Euskaltzaleen Topaguneak Irakurri, gozatu eta oparitu ekimenaren zazpigarren edizioa jarri du abian, zenbait euskara elkarte, udal liburutegi eta liburu dendarekin batera elkarlanean eta hainbat Udal, Eusko Jaurlaritzaren kultura saila zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin.

Egitasmoa apirilaren 23an jarriko da martxan, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez, eta ekainaren 30era arte luzatuko da. Nafarroa zein Euskal Autonomi Erkidego osoko 24 herritan zabalduko den ekimenak irakurzaletasuna bultzatzea du xede nagusi.

Aurten gorakada nabarmena izan du egitasmoak, iaz baino 9 herri gehiagotan jarriko baita martxan. Nafarroari dagokionez, Gares, Lekunberri, Lizarra eta Ultzaman aurkituko da.

Prozesuari dagokionez, aurreko edizioetako dinamika berdinarekin ekingo zaio egitasmoari. Hala, programaren baitan sartzen diren herrietako liburutegietan euskarazko liburu bat maileguan hartu ondoren, erabiltzaileak fitxa bat bete eta txartel bat jasoko du, herriko liburutegian liburu hori edo euskarazko beste edozein liburu erosi ahal izateko deskontu batekin. Deskontua %25koa izango da, %50ekoa mailegua egun duen hori euskaldunen elkartekoa izanez gero.

Egitasmoa tokian tokiko euskaldunon elkarteetan, udalen, udal liburutegien eta liburu dendan elkarlanari esker abiatuko da, eta herrietako eragileen arteko harremana bultzatzea ere badu helburu.

Ekimena ez da liburuen mailegu eta erosketara mugatiko, alta. Izan ere, ekimenaren bueltan bestelako jarduerak antolatu nahi izan ditu Topaguneak, hala nola solasaldiak, liburu azokak, irakurketa musikatuak eta abar. Egitasmoak Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundien babesaz gain, honako argitaletxeen laguntza jasotzen du: Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela, Txalaparta eta Susa.

Ekimena Araban (Aramaio, Arratzua Ubarrundia, Legutio, Urkabustaitz, Zigoitia eta Zuia), Bizkaian (Ermua, Larrabetzu, Lezama, Mallabia, Portugalete, Sondika eta Zamudio) eta Gipuzkoan (Ataun, Beasain, Lazkao, Mutriku, Ordizia eta Zaldibia) ere garatuko da.